

AMATXI

Kattalin Duhalde, 11 urte

Ahierra

Orain lur azpian duzu burua,
Ezin dizut eman muxua,
Onartuko nuke gudua
Erraiten badidazu, nolakoa den zerua.

Zure gorputza orain isila,
Martxoaren 3a aitzin zara hila;
Begiak hestean zugandik naiz hurbila,
Ez dakit zaren itsusia edo abila.

Eritasunak egin zizun min
Nahi nuke zugana jin;
Badakit, hori ezin da egin:
Zerura jinen naiz, egiten dizut zin!

Sortzean zu zintudan falta,
Zu ikustea espero nuen, alta.
Bihotza hasi zitzaidan dardarka,
Hain gazte joaiteko izan zara ausarta.

Igandetan atzartzen naiz goizero,
Zu berriz ikustea espero;
Elizan bihotza atxikiz bero,

Hilerrian negarrez hasten gero.

Zu gabe ezin bizi,

Nahiz ez zaitudan sekula ikusi;

Ezin zaitut ahantzi...

Hain zaitut maite... Amatxi!